

# *Entzumena lantzeko ariketak*

*Ane Urizar*

## 1. SARRERA

Aurreko ZUTABEn, 5. zenbakian hain zuzen, «Entzumena lantzeko zenbait ohar» izeneko artikuluan, entzumenari buruzko zenbait puntu teoriko aztertu ziren. Bi ziren, batez ere, puntuok:

- Lehenik, nolakoa den bizitza errealean entzuteko prozesua.
- Eta, bigarrenik, ikasleek entzumea lantzerakoan izaten dituzten arazoak.

Hirugarren puntu bat ere agertu zen artikulua sarreran, entzumena lantzeko klasean erabil daitekeen zenbait ariketa mota, hain zuzen; baina hurrengo ZUTABE batetarako uzten zen puntu hori. Hemen aztertuko dugu, bada, hirugarren puntua: «Entzumena lantzeko ariketa motak». Artikulu honetan azaltzen diren ariketen sailkapena Penny Ur-en «Teaching Listening Comprehension» liburuan oinarrituta dago, eta artikuluan zehar azaltzen diren entzumen-ariketa gehienak, berriz, HABEren «Euskalduntzearen A mailarako lan-gaiak» liburutik hartuak dira edo beste zenbait bibliografiatan azaltzen diren entzumen-ariketa liburuetatik euskarara egokitutakoak.

## 2. ENTZUMEN-ARIKETAK

Nahitaezkoa da klaserako entzumen-ariketak prestatzerakoan zenbait puntu kontutan hartzea, adibidez:

- Bizitzako zein egoeratako prestatzen ari garen ikasleak eta egoera horietan aurkituko dituzten arazoak.
- Klaseko irakaskuntz - ikaskuntz prozesua.
- Ikasgelaren tamainua eta antolaketa. Ikasleen kopurua.
- Arazo teknikoak: kasete, bideo eta beste zenbait tresnaren erabilera.
- Arazo pedagogikoak: nola piztu ikasleen motibazio, kontzentrazio eta partizipazioa, nola egin zuzenketak, nola eman erantzunak, eta abar.

### 2.1. Entzumen-ariketetarako testuaren aukeraketa

Bizitza errealean entzuten dugun hizkera kolokial eta espontaneoaren kontra, gaurregun klasean erabiltzen diren entzumen-ariketa gehienak hizkera formalean oinarrituta daude. Egia da ikasleek irakaslearen hizketa espontaneo

(azalpenak, oharrak...) ere entzuten dutela beste zerbait egiten ari diren bitartean, baina hau ez da nahikoa; eta entzumen-ariketa gehienak alde aurretik prestatutako eta irakasleak irakurritako edo kaseteen bidez emandako testutan oinarritzen dira batipat. Teori aldetik hau ez legoke ondo. Baina ontzat eman daiteke, teknikoki zaila izan baitaiteke hizkera espontaneoko zatiak irakaskuntzan erabiltzea. Bestalde, benetako hizkera espontaneoko grabazioak erabiltzerakoan, bi oztopo nagusi-ekin topo egiten dugu:

- Benetakoa izaki, erabilitako hizkera ez dago mailakatuta eta sarritan oso zaila izaten da. Goi mailetarako bakarrik balio izaten dute horrelako grabazioek.
- Denok dakigu zein zaila izaten den hizkera espontaneoaren grabazioak ulertzea. Hiztuna ez ikusteak zaildu egiten badigu jatorrizko hiztunoi ere ulertzea, pentsa dezagun zein zaila izango den hizkuntza ikasten ari den batentzat.

Baina hain beharrezkoa ote da espontaneitatea? Hizkera kolokialaren grabazioak entzuteak bizitza errealerako prestakuntza hobea ematen ote du?

Elkarriketa espontaneoaren grabazioak ez dira oso egokiak behe mailetarako, ikasleek gehiago ikas dezakete egi-egiazkoa ez baina bai oso hurbilekoa den hizkera entzunez, batez ere, ikasleen mailarako eta beharretarako prestatua dela kontuan harturik.

## 2.2. Eginkizuna

Entzumen-ariketak eraginkorragoak dira, eginkizun baten inguruan antolatzen baldin badira. Ikasleak entzun duena ulertu duela frogatzeko egin beharko duen zerbait da EGINKIZUNA, hain zuzen. Eginkizunak honako hauek izan daitezke, esate baterako: diagrama bat osatzea, aginduak betetzea...

Geure bizitzan norbaiti zerbait entzuten diogunean, arrazoi ezlinguistikoak dauzkagu esaten duena entzuteko. Ikasleak klasean entzuteko daukan arrazoi nagusia linguistikoa da erabat: entzu-

mena lantzea. Hori horrela izanik, komenigarri da ariketari helburu ezlinguistikoren bat gaineratzea: EGINKIZUNA. Ikasleak alde aurretik baldin badaki era bateko edo besteko erantzuna eman beharko duela, badu entzuteko arrazoi bat; eta zein informazio mota entzungo duen eta horren aurrean nola erreakzionatu badaki.

Aurreko ZUTABEn esaten genuen entzumen-egoera gehienetan entzuleak erantzuna berehala ematen duela. Eginkizunak bizitzako egoera hori klasean simulatzeko aukera eskaintzen digu, baina erantzun gehienek isilekoak izan beharko dute: zerbait egin, marraztu, idatzi...; batez ere, irakaslearentzat ezinezkoa delako ikasle guztien erantzunak batean entzun eta zuzentzea.

Behe mailetan hobe da eginkizuna ikusizko materialetan (marrazkiak, diagramak, mapak) eta erantzun laburretan (mugimendu fisikoa, hitz bakarreko erantzunak...) oinarritzea. Maila altuagotan entzumena beste trebetasun batzurekin batera lan daiteke: irakurketa (erantzun anitzeko galderei erantzun, adibidez), idazketa (oharrak hartu), eta abar.

## 2.3. Motibazioa

Norbaiti pasiboki entzutea baino askoz ere pizgarriagoa da aktiboki erantzutea; horregatik, ondo prestatutako *eginkizuna* interesgarria eta eraginkorra izan daiteke. Gaiak berak ere interesa eta gustua pizten laguntzen du. Behe mailetan gaiaren hautapenak ez du hainbesteko problemarik sortzen, aukera ikasleen hizkuntza ezagupenek gai jakin batzutura mugatzen dutelako: familia, etxea, animaliak, lagunak... Maila altuagotan zailagoa da gaiak aukeratzea; gai aspergarriak baztertu eta ikasleen gustukoak aukeratzea komeni da. Bestalde, umoreak ere asko laguntzen du interesa haundiagotzen.

## 2.4. Arrakasta

Ikasleek arrakasta izan eta pozik gelditzeko moduan prestatu behar dira

eginkizunak. Ikasleak garaile ateratzen badira, motibazioa handitu egingo zaie eta egindako entzumen-ariketaren efektibotasuna ziurtatuko da.

Ikasleentzat ez da inoiz arazoa izaten entzundakoa ulerterraza den ala ez; are gehiago, entzundakoa erraz ulertzeak motibatu egiten du ikaslea. Nekez ulertzeak, berriz, frustrazioa sortzen dio. Beste puntu bat ere kontuan hartu behar da: entzumen-ariketen helburua entzumena lantzea dela. Honekin esan nahi da, askotan, agintzen den eginkizuna zailegia izan daitekeela edo konplexuegia; eta, horrelakoetan, entzumena eginkizunaren zerbitzuan jartzen da, eginkizunaren helburua juxtu-juxtu alderantzizkoa delarik, hots, entzumena-zerbitzuan egotea.

Eginkizunaren prestaketak eta banaketak ere ahalik eta *sinpleena* izan beharko luke. Paper-zati gehiegi edo ekipo konplikatuak eskatzen duten ekin-tzek, askotan, denbora gehiegi kentzen dute eta ez dute pena merezi izaten.

### 2.5. Zuzenketa

Zuzenketa eginkizuna burutu bezain laster egitea komeni da, hau da, ikasleak entzun duenaren oihartzuna oraindik buruan darabilenean eta berriz ere entzun dezakeen bitartean.

## 3. ENTZUMEN-ARIKETEN SAILKAPENA

Bi multzo nagusitan sailkatzen ditu Penny Ur-ek entzumen-ariketak:

- Pertzepzio mailakoak.
- Ulermen mailakoak.

Lan honetan pertzepzio mailako entzumen-ariketak ez ditugu ikusiko, ez bait dute euskara irakasteko ia balio.

Lau multzotan banatzen ditu autore horrek ulermen-ariketak: lehenengo multzoko entzumen-ariketetan, entzuleak entzun egiten du, baina ageriko erantzunik eman gabe; bigarreanean, entzuleari erantzun xume bat (normalean ez-ahozkoa) eskatzen zaio, bere

ulermen maila neurtu ahal izateko; hirugarrenean, entzulearen erantzunak luzeagoak dira. Bestalde, gainontzeko gaitasunenak (irakurmena, idazmena eta mintzamina) erabili beharraz gain, entzumen-ariketak berak planteatzen duen arazoa ere burutu behar izaten du ikasleak. Azkenengoan (eztabaida pizteko ariketak dira), zeregin funtsezkoa du entzumenak, baina baita gainontzeko gaitasunek ere. Sailkapen honetan progresio bat dago hasierako ariketa erraz eta sinpleenetatik bukaerako sofistikatuenetara; baina ariketa asko maila askotarako eta adin desberdineko taldeetarako egokiak dira. Honako hau dugu, beraz, ulermen mailako entzumen-ariketen sailkapena:

### — ERANTZUNIK GABEKO ULERMEN-ARIKETAK

- Testu idatzi bat jarraitu
- Testu ezagun bat entzun
- Ikusizkotan oinarritutako entzumen-ariketak
- Irakaslearen hizketaldi informala
- Denborapasako entzumen-ariketak.

### — ERANTZUN LABURREKO ULERMEN-ARIKETAK

- Aginduak bete
- Hitzak jaso
- Egia/Gezurra ariketak
- Okerrak atzeman
- Hutsuneak bete
- Definizioak asmatu
- Informazio espezifikoa hartu
- Marrazkiak
- Planoak eta mapak
- Diagramak
- Famili zuhaitzak
- Grafikoak

### — ERANTZUN LUZEKO ULERMEN-ARIKETAK

- Errepikapena eta diktaketa
- Parafraseatu
- Itzulpenak egin
- Galderei erantzun
- Testuen ulermenari buruzko galderei erantzun

- Antzeman
- Hutsuneak bete
- Laburpen-ariketak

— **EZTABAIDA SORTZEKO  
ULERMEN-ARIKETAK**

- Arazoak ebatzi
- Puzzle entzumen-ariketak
- Interpretazio entzumen-ariketak
- Azterketa ebaluatzaile eta estilistikoak

ZUTABEren ale honetan «erantzun laburreko ulermen-ariketak» bakarrik aztertuko ditugu, gainontzekoak hurrengo baterako utzirik.

**4. ERANTZUN LABURREKO  
ULERMEN-ARIKETAK**

Entzumen-ariketa hauek ikaslearen bapateko erantzun laburra eskatzen dute. Entzungaiak, normalean, hizketa kolokialeko hizketaldi laburrak izaten dira (bakarrizketak edo elkarrizketak), baina hizketaldi luzeak ere erabil daitezke.

Hauetako batzuk ez diote ikasleari materialik eskatzen edo, asko jota, boligrafo bat eta paper-zati bat besterik ez. Beste ariketa batzu konplexuagoak iza-

ten dira eta marrazki eta diagrametan oinarritzen dira.

Irakaslearen zuzenketak, kasu gehienetan, ariketa burutu ahala jasotzen dituzte ikasleek.

**4.1. Aginduak bete**

Ariketa mota hauetan aginduak ematen zaizkie ikasleei. Agindu horiek betez erakusten dute ikasleek entzundakoa ulertu dutela. Ariketa mota ezagunenak hauek dira:

- 4.1.1. Mugimendu fisikoa.
- 4.1.2. Ereduak eraiki.
- 4.1.3. Marrazkien diktaketa.

**4.1.1. Mugimendu fisikoa**

Behe mailan aginduak oso sinpleak izaten dira: «etorri hona», «eser zaitez», «leihoa ireki»... Maila altuagotan agindu konplikatuagoak eman daitezke; adibidez, «jar itzazue liburuak zeuen mahaiaren ezker aldeko puntan»...

Ariketa mota hau globalkiago ere lan daiteke. Ikus ditzagun «ZINE ZUZENDARIA» izeneko ariketa (1. urratsa, 3. ikastunitatea, HABE) eta «ERREPORTAIA GRAFIKOA» izeneko (1. urratsa, 3. ikastunitatea, HABE)

**«ZINE ZUZENDARIA»**

• **Nola egin**

Ikasleak hirunakako taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitzean hiru pertsonaia izango dira: filme-zuzendaria eta bi filme-izar. Filmearen eszena baten filmazioa antzertu behar dute. Zuzendariak aginduak emango ditu eta ikasleen artean paperak aldatzen joango dira, denek zuzendariaren papera egin ahal izateko.

• **Filmatu beharreko eszena (1. marrazkia):**

Zuzendariak dio:

- Isilik, mesedez, isilik!  
Beno, Rodolfo, ireki atea, sartu...  
Ibili; korrika ez! Poliki..., horrela..., eseri aulkian, ez mugitu.  
Orain, hartu eskua...; ez farre egin, irrifar gozo bat bakarrik... horrela, oso ondo.  
Lulu, itxi begiak.  
Rodolfo, eman musua. Oso ondo.  
Beste musu bat, horrela.  
Moztu.



«ERREPORTAIA GRAFIKOA»

• **Nola egin**


Ikasleak binaka jarriko dira, bata argazkilaria delarik eta bestea artista famatua (Lola Flores, Koo Stark...). Argazkilariak artistari buruzko erreportaiak grafikoa egin behar du eta, horretarako, artistari aginduak eman beharko dizkio, behar den jarrera har dezan.

- **Ereduak:**— Eseri  
 — Besoa altxa  
 — Irrifarre egin  
 — Eskuak aurpegian jarri  
 — ...

**4.1.2. Ereduak eraiki**

Ariketa hauetako aginduak ereduak teko joko didaktikoetako listoitxo kolorezkoak erabil daitezke. Adibidez:

«Lehendabizi, har itzazue listoi bi, bata gorria eta bestea zuria. Jar itzazue mahai gainean luzeka, bata bestearen ondoan. Orain hartu listoi urdin bat eta gorriaren gainean jarri...».



Ariketa hau zailagotu ere egin daiteke, ikasleen mailaren arabera.

**4.1.3. Marrazkien diktaketa**

Aginduak emanez egin daitekeen beste ariketa mota bat marrazkien diktaketarena da. Irakasleak edozein aldizkari edo liburutako marrazki bat har dezake eta honen deskribapena egin, ikasleek marraz dezaten. Haurrek oso gustora egiten dute. Oso entretenigarria izaten da, batez ere, egindako marrazkiak originalarekin konparatzen direnean.

Ariketa hau egiteko beste modu bat ikasleek binaka egitea da, hau da, batek aginduak emango ditu eta besteak marraztu egingo du. Era honetan mintzamenaren ere landu egiten da.

**4.2. Hitzak jaso**

Entzumen-ariketa honetan ikasleek bakoitza bere sailean jarri beharko duten hitz-zerrenda bat entzuten dute. «Bingo» izeneko ariketa ere hauetarikoa da. Adibidez:

- Irakasleak edo zintak esandako hitz-zerrenda bi sail hauetan sailkatu beharko dute ikasleek: «aulkia, mahaia, soinekoa, prakak, telebista, zapata, ohea, gona...»

**ARROPAK**

soinekoa

...  
...  
...

**ALTZARIAK**

aulkia

...  
...  
...

Maila altuagoetan hitzak pasarte koherente baten barruan egon daitezke (ipuin batean, adibidez) eta ikasleek

kategoria jakin batzuren arabera sailka ditzakete. Hona hemen zenbait sугerentzia:

1. <b>KOLOREAK</b>	<b>ARROPAK</b>	2. <b>GAUZA BOROBIKAK</b>	<b>GAUZA ERREKTANGULARRAK</b>
gorria	azpiko gona	arrautzak	liburuak
urdina	zapatak	baloia	irratia
berdea	elastikoa	sagarrak	...
zuria	...	pilotak	...
...		...	
3. <b>KUALITATE ONAK</b>	<b>KUALITATE TXARRAK</b>	4. <b>NORBAIT DESKRIBATZEN</b>	
azkarra	lodia	-	-
atsegina	zuhurra	-	-
maitagarria	ganorabakoa	-	-
alaia	alferra	-	
...	...		


**4.3. Egia/Gezurra ariketak**

Ariketa mota hau oso ezaguna eta sinplea da. Ikasleei pasarte bat ematen zaie aditzera eta egia ala gezurra den esan behar dute. Edozein lagungarri ikusizko, pasarte idatzi edo mintzatu erabil daiteke oinarritzat. Erantzuna emateko era asko daude:

- «Bai», «ez», «E/G» letrak idatziz.
- Erantzuna ekintza fisiko baten bidez emanez: «bai» eta «ez» idatzitako paperak altxatuz...; edo ezkerreko eskua altxatuz «bai» eta eskuinekoa «ez» adierazteko, kolore diferentetako paper-zatiak altxatuz.

Ikasleak epaitu beharreko pasarteak gauza orokorrak izan daitezke («Astoak gorriak dira», «Lurra edan daiteke»), edo oraintxe bertan gertatzen ari diren gauzak («euria ari du», «ni italiarra naiz»), aldez aurretik irakurri edo entzundako ipuin bati buruzko baieztapenak.

Ikusizko lagungarriak ere erabil daitezke ariketarako oinarri bezala. «Taberna» marrazkia erabiliz, adibidez, irakasleak honako esaldiok bota ditzake: «zerbitzari betaurrekodunak ardo-botila bat dauka eskuan», «barran eserita dauden mutilei sartuberri den neska gustatzen zaie»...




Ariketa mota hau maila altuagotan ere erabil daiteke. Grafikoak oinarri bezala erabiliz, ariketa zailagotu egiten da.

Eguraldiari buruzko grafikoa erabiliz adibidez:

«EGURALDIA»

- «Kataluniako eguraldia Canarias aldekoa baino askoz ere lainotsuagoa eta hotzagoa da. Haizeak gogor jotzen du Tarragona aldean eta bi metroko olatuak sortzen dira hondartzetan. Eguzkiak asko berotzen ditu, berriz, Canarias aldeko hondartzak, oskarbi bait dago, eta ez dago haizearen arrastorik, itsasoa urmahel bat bezain bare dagoelarik...»



	Ekaitza	C	Beroa
	Lainoa	T	Epela
	Haizea	f	Hotza
	Oskarbi	F	Hotz handia
	Tartekeko hodeiak	H	Izozteak
	Oso lainotua	~~~~~	Metro bateko olatuak
	Estalia	~~~~~	Bi metroko olatuak
	Ekurra	~~~~~	Hiru metroko olatuak
	Edurra	~~~~~	Lauroko metroko olatuak
C	Bero handia		

Ariketa erraz daiteke, ikasleei egia ala gezurra den adierazteko ohar labur batzu emanaz. Aurreko ariketarekin jarraituz, adibidez:

— Kataluniako giroa Canariasekoa baino lainotsuagoa da	: Bai
— Kataluniako giroa Canariasekoa baino hotzagoa da	: Ez
— Haizeak gogor jotzen du Tarragonan	: Ez
— Tarragonako hondartzetan 2 metrotako olatuak izaten dira	: Ez
— .....	: Bai

#### 4.4. Okerrak atzeman

Arestian ikusitako «egia/gezurra» ariketen bertsio sofistikuago bat da. Ikasleek esaldi solte bakoitza egia ala gezurra den ebaluatu ordez, pasarte luzeagoak entzuten dituzte, gezurra entzuten denean bakarrik erantzuna emanaz. Gezur hau ipuin ezagun batean zerbait oker esatea izan daiteke, edota errealitatean okerra den zerbait (posible ez den zerbait), edota esandakoarekin bat ez datorren hitz edo esaldiren

bat (inkonsistentzia edo kontraesanen bat). Ikasleek okerre buruz emango duten erantzuna eskuak altxatzea, ahoz esatea edota oker bakoitza paper batean seinalatzea izango da.

Munduko kultura guztietan daude herri-ipuinak, eta horietako zenbait ezagunak dira mundu osoan. Aproposak dira «okerrak atzeman» motako ariketan erabiltzeko. Ikus dezagun «TXANO GORRITXO»rena, adibidez:

#### «TXANO GORRITXO»

Behin batean Txano Gorritxo bere amarekin bizi zen. Egun batean honela esan zion *aitatxok*:

— Hartu saski hau eta eraman *izebatxori*. Ez zaitez geldi *perretxikoak* biltzen, ez zaitez *tren-bidetik* atera.

*Negu hotza zen*, eta Txano Gorritxo bidean *bere lagunekin hizketan gelditu zen*. *Hauetako batek* amonaren etxera lagunduko ziola esan zion...

• Bertsio orijinala hau da:

Behin batean Txano Gorritxo bere amarekin bizi zen. Egun batean honela esan zion *amatxok*:

— Hartu saski hau, eta eraman *amonatxori*. Ez zaitez geldi *loreak* biltzen eta segi ezazu *bidea*, ez zaitez *bidetik* atera.

Udaberria zen, eta Txano Gorritxo bidean *gelditu eta loreak hartzen* hasi zen. *Otsoa agertu zen bidean eta...* «Egunon, Txano Gorritxo. *Nora zoaz?*» esan zion...

Beste gauza bat ere egin daiteke. Ikasleek aurrean ikus dezaketzen zerbait, okerrak sartuz, deskribatzea: ikasgela, leihotik ikusten den paisaia, ikasle baten edo batzuren itxura, marrazkiak...

#### 4.5. Hutsuneak bete

Ariketa mota hau normalki irakurmena ebaluatzeko erabiltzen da. Ikasleari hitz batzu (tarte irregular edo erregularretan) ezabatuta dituen pasarte idatzi

bat ematen zaio. Ezabatutako hitzak zeintzu diren asmatu behar du ikasleak, testuingurua lagun.

Ariketa hau entzumen lantzeko ere erabil daiteke.

Ikasleei hutsuneak dituen testu bat banatzen zaie, eta irakasleak bertsio


osotua irakurri besterik ez du egiten, ikasleek hutsuneetako hitzak batetzen dituztelarik.

Hemen dugu adibide gisa «KONTXA NEGUAN» izeneko bideokasetea (2. urratsa, 24. ikastunitatea, HABE):

### «KONTXA NEGUAN»

#### • Nola egin

Bideokasetea behin edo bitan ikusi eta entzun, eta testuan falta diren hitzak bete.



Donostiara neguan etortzen bazarete, Kontxa gehienetan honela ikusiko duzue.

Santa Klara irla eta Igeldo mendia lanbro artean. Hau Donostia itsas-ondoan \_\_\_\_\_ gertatzen da.

Begira, gaur itsasoa \_\_\_\_\_ dago. Eguraldi \_\_\_\_\_ dago. Kaiolak \_\_\_\_\_ dabilta. Hotz dago. Eurria \_\_\_\_\_. Ni hona farolak eta hondartza \_\_\_\_\_ etorri naiz.

Eguerdiko \_\_\_\_\_ dira eta eguraldia \_\_\_\_\_ ari da. Lehen Igeldo lanbro artean egon da, baina orain ia \_\_\_\_\_ ikusten da.

Urrutiko mendi haiek elurrez estalita daude; zuri-zuri daude. Baina Kontxa \_\_\_\_\_ berde ikusten da. Zergatik? Ba Donostian ia inoiz ere ez \_\_\_\_\_.

Honelaxe ikusten da Kontxa Igeldo mendi \_\_\_\_\_. Lehenengo Santa Klara, ondoren Urgull, eta azkenean Ulia mendia. Donostia itsasertzean \_\_\_\_\_ da oso polita. Hura \_\_\_\_\_ portua da. Batzutan itsasoa oso haserre \_\_\_\_\_ eta ikaragarritzko olatuak altxatzen dira.

#### • Testu orijinala:

«Donostiara neguan etortzen bazarete, Kontxa gehienetan honela ikusiko duzue.

Santa Klara irla eta Igeldo mendia lanbro artean. Hau Donostia isasondoan dagoelako gertatzen da.

Begira, gaur itsasoa bare-bare dago. Eguraldi motela dago. Kaiok bilduta dabilta. Hotz dago. Euria ari du. Ni hona farolak eta hondartza ikustera etorri naiz.

Eguerdiko hamabi terdiak dira eta eguraldia aldatzen ari da. Lehen Igeldo lanbro artean egon da, baina orain ia garbi-garbi ikusten da.

Urrutiko mendi haiek elurrez estalita daude; zuri-zuri daude. Baina Kontxa inguru guztia berde ikusten da. Zergatik? Ba Donostian ia inoiz ere ez duela-ko elurrik egiten. Honelaxe ikusten da Kontxa Igeldo mendi-puntatik. Lehenengo Santa Klara, ondoren Urgull eta azkenean Uli mendia. Donostia itsasertzean dagoelako da oso polita. Hura Donostiako portua da. Batzutan itsasoa oso haserre egoten da eta ikaragarritzko olatuak altxatzen dira...»

Bertsio idatziaren aurrean ikasleak ez du hain gogor sentitzen normalki entzumen-ariketek sortzen duten presioa. Ikasleak ez dira hainbeste belarriez baliatzen, lanik gogorrena begiek egiten bait dute. Hala ere, «hutsuneak bete» motako ariketak beste era batzutan ere egin daitezke, ariketa zailagotuz; baina, ikasleek bizitza errealean entzungo dutenari aurre emateko, askoz ere egokia-ko bihurtuz.

Orain ikusiko dugun adibidean, «KAIXO, ETXEKOAK» (3. urratsa, HABE), ikasleek elkarrizketa bat entzuten dute eta «esaldi mailako» hutsuneak betetzea izango da ondoren burutu beharko duten eginkizuna. Bete beharreko hutsuneok ez dira entzundako pasartetik hitzez hitz hartuak izango, esaldi mailan zenbait transformazio egin beharrekoak baizik.

#### «KAIXO, ETXEKOAK»

##### • Entzuteko pasarteak

Manu: Ama, tori. Aurrezki Kutxako gutunak dira. Eta Ixabel eta Joxean-en postala ere heldu da.

Ama: Ekarri postala, Manu

Manu: Zaude piska bat, ama. Nik irakurriko dizuet. Gainera betiko postala bialdu dute: Parlamendua. Badirudi Londresen besterik ez dagoela.

Amona: Baina, zer diote? Ondo dabilta?

Manu: Entzun. Zer moduz gauden galdetzen dute eta ea aitari katarroa joan zaion.

Amona: Eta ez dute nitaz ezer galdetzen?

Manu: Bai, amona. Ea ondo zauden. (Orain neska-ahotsez) «Oso ondo gabilta Londresen. Hau udaberrian zoragarria da.» Bah! Ezkonberri guztiek idazten dituzten txorakeriak.

Ama: Zaude isilik eta segi, Manu, mesedez.

Manu: Ondo dago. Atzo Canterbury-ra joan zirela esaten du eta oraindik ez dutela nire diskoa aurkitu; bihar joango direla erosketak egitera eta aurkituko dutela. Ea Esther Madina ezagutzen duzun galdetzen du, ama.

Ama: Bai, horren ama nire laguna da. Ezagutuko ez dut ba.

Manu: Londresen ikusi dutela dio Ixabelek eta Londresen bizi direla. Ingeles batekin ezkondu omen dago.

Ama: Bai, zerbait entzuna nuen. Donostian ezagutu zuten elkar. Besterik kontatzen dute, Manu?



«NON GERTATZEN DA ELKARRIZKETA»

• **Nola egin**

Ikasleek lau elkarrizketa entzun behar dituzte; ondoren, elkarrizketa bakoitzari zein marrazki dagokion asmatu eta marrazkiaren ondoan 1, 2, 3, edo 4 zenbakia ipiniko dute. Gero, binaka, elkarrizketa horiek antzetzuko dituzte.

**1. TELEFONOZ**

Ringgg!

—Bai, esan!

—Juantxo Gutierrez naiz.

—Nor zara? (harriduraz)

—Juantxo Gutierrez. Ikasle bat naiz.

—Ikaslea? (harriduraz)

—Bai, hori euskaltegia da?

—Ez, hau Maria Cristina Hotela da.

—A! Barkatu!

**2. HOTELEAN**

—Arratsalde on!

—Baita zuri ere. Nor zara zu?

—Idoia Agirrebengoa naiz.

—Bakarrik zaude?

**3. TABERNAN**

—Gabon, Mikel!

—Zer moduz, Garbiñe?

—Oso ondo; eta zu?

—Ondo ni ere. Zer da hori?

—Hau whiskya da; eta hori?

—Hau ardoa.

—Aizu, Mikel, zein da gizon beltz hori?

—Hori Andy Brown da, Real Soziedadedo futbolaria.

—Ummm, oso mutil egokia da!

**4. EUSKALTEGIKO IDAZKARITZAN**

—Egun on.

—Baita zuri ere.

—Zein zara zu?

—Roberto Etxekalte naiz.

—A bai, Roberto. Abizenak? Etxekalte...

—Etxekalte Garaizabal.

—Helbidea?

—Urbietta Kalea, 10.

—Ikasketak?

—Maisua naiz.

—Adina?


—24 urte.

—Eskerrik asko.

Era honetako ariketak egokiak dira behe mailatarako, baina ez altuagoetarako; altuetan oso erraza izaten baita entzundakoari dagokion marrazkia zein den asmatzea. Zailagoa da ondorengo

marrazkian\* azaltzen dena bezalako bintetak erabiltzea, zeren ikasleek arreta bizi entzun beharko bait dute, entzundako deskribapena binetan identifikatu ahal izateko. Adibidez:

«Gizon bat dago marrazkian. Besaulki batean eserita dago, musika klasiko entzuten. Aurpegi alaia du eta ametsetan ari da. Bere ametsean xirulari bat ikusten du txilibista jotzen. Xirularia ez da eskuineko eskuko erdiko hatzamarrekin txilibistaren zuloa zapaltzen ari, beste hatzamarrekin bai».



\* QUINO (1976): «Bien. Gracias. ¿Y usted?», Barcelona, Lumen, 91 or.

Egindako deskribapenari zein marrazkidagokion asmatu beharko dute ikasleek. Era honetako binetak behin eta berriro erabil daitezke, entzunaldi bakoitzean marrazki desberdina deskribatuz. Edozein eratako marrazkiak izan daitezke. Gauzarik inportanteena marrazkiak berdintsuak izatea da, horrela ikasleek entzuteko arreta bizia jarri beharko bait dute.

Ikusizkoez aparte, igarkizun-jokoe-tan erabiltzen den edozein gai ere era-

bil daiteke deskribapenak egiteko: gauzak, jendea, lanbideak, animaliak, tokiak, gertaerak. Irakasleak erantzunen zerrenda egiten du eta deskribapenak inprobisatzen ditu. Deskribapenak motzak izatea komeni da, bi edo hiru minututan hamar deskribapen edo gehiago egin ahal izateko. Adibide bezala «*ENTREBISTAK*» (1. urratsa, 2. ikastunitatea, HABE) izeneko entzumen-ariketa ikusiko dugu:

### «ENTREBISTAK»

#### • Nola egin

Entzungai bakoitzaren aurretik hiztegi berria azaltzen da.

Ikasleek bi aldiz entzuten dute elkarrizketa; ulertzen dutenean, ikaslearen fitxa banatzen zaie, bertako pertsonaien zerrendan entzundakoa aukera dezaten.

Binaka jartzen dira, entzun duten elkarrizketa antzezteko.

#### • Testua (zintaz graba daiteke)

##### WOODY ALLEN

##### ZEIN DA TIPO HAU?

- Euskalduna zara?
- Ez, judua naiz.
- Judu poloniarra ala israeldarra zara?
- Ez poloniarra, ez israeldarra; judu amerikarra naiz.
- Politikaria zara?
- Ez! Ez naiz politikaria.
- Zer zara, bada?
- Komikoa eta zinemagilea naiz.
- Dotorea zara?
- Tira, itsusia naiz, baino oso sexya!

##### BENITO LERTXUNDI

##### ZEIN DA TIPO HAU?

- Frantziarra zara?
- Ez, ez naiz frantziarra.
- Eta amerikarra?
- Ez, euskalduna naiz.
- Politikaria zara?
- Ez, ez naiz politikaria.
- Aktorea zara?
- Ez, kantaria naiz.
- Bilbotarra zara?
- Ez, oriotarra naiz.
- Imanol zara?
- Ez, ez naiz Imanol.

**ROLLING STONES****ZEINTZU DIRA PERTSONA HAUEK?**

- Txinatarrak zarete?
- Ez gara txinatarrak.
- Euskaldunak zarete?
- Ez, ingelesak gara.
- Gizonak zarete?
- Bai, denok gizon sexyak gara.
- Kirolariak zarete?
- Ez, kantariak gara.
- Gazteak zarete?
- Tira, ba ez gazteak, ez zaharrak; 40 urtekoak.
- The Beatles zarete?
- Ezta pentsatu ere!

**SATRUSTEGI****NOR DA GIZON HAU?**

- Egokia da?
- Bai, oso egokia.
- Alemaniarra da?
- Ez, ez da alemaniarra.
- Suediarra?
- Ezta ere; nafarra da.
- Politikaria da?
- Ez da politikaria.
- Zer da, bada?
- Kirolaria da.
- Korrikalaria ala arraunlaria?
- Ez, ez, futbolaria da.
- Athletikekoa da?
- Ez, Real Soziedadekoa da.

• **Ikaslearen fitxa**

Entzun eta aukera itzazu pertsonak.

Andy Warhol	Woody Allen
Liza Minelli	Crace de Monaco
Arkonada	Fellini
Peter Sellers	Robert Reford
Felipe González	Aita Santua
Etxenike	Rolling Stones
Claudia Cardinale	Iribar
Benito Lertxundi	Andu Lertxundi
Fraga Iribarne	Julio Iglesias
Joan Manuel Serrat	Satrustegi
Koo Star	Xabierreko Frantzisko
Arzallus	Vulpes

#### 4.7. Informazio berezia hartu

Ariketa hauetan ikasleek pasarte bat entzuten dute eta informazio berezi bat lor dezatela eskatzen zaie. Ikasleak entzundakoaren zati konkretu batzuri jarriko dio arreta, entzuten duen beste guztia alde batera utziz. Hau bizitzan gertatzen den gauza arrunt bat besterik ez da: interesatzen zaiguna lortzeko entzuten dugu, beste guztia alferrikako hitz bihurtzen delarik.

Gaia zein izango den azaltzen zaie ikasleei entzuten hasi aurretik, eta baita zein informazio berezi lortu beharko duten ere.

Ikasleek lortu behar duten informazioaren arabera, bi motakoa izan daiteke entzumen-ariketa hau:

- a) Hitz berezi batzu lortu besterik ez. Aldez aurretik ikasleek badakite

zein informazio mota lortu behar duten eta beste guztia sobre dagoela; horregatik, informazio hori lortutakoan, belarriak itxi ditzakete, sobre dagoena alferrikakoa bait da. Entzunaldi osoa bi edo hiru minututakoa izan daiteke, adibidez, eta horretatik interesatzen zaiguna, bi segundotakoa. Aireportuko adibidea, esaterako: eman dezagun bozgorailuetatik hegazkinei buruzko informazioa ematen ari direla eta ikasleei eskatzen diegun gauza bakarra hau dela: «Zein da Chicagotik goizeko 11etan datorren hegazkinaren hegaldi-zenbakia?», «Zenbat ordu atzeratu dute Mexikorako hegazkina?»

Beste adibide egoki bat «TXEKEAK» (2. urratsa, 28. ikastunitatea, HABE) izeneko ariketa dugu:

#### «TXEKEAK»

- 
- Emakumeak: Bai, asko gustatzen zait gona hau. Zuri zer iruditzen zaizu?  
Dendariak: Oso ondo daukazu, benetan. Gainera hau da merkeena, gutxitan izaten da horrelako aukerarik. Begira, beste gona guztiak garestiagoak dira.
- Emakumeak: Bai, arrazoi duzu. Eraman egingo dut.  
Dendariak: Ez zara damutuko. Ikusiko duzu.
- Emakumeak: Ez dut dirurik hemen, baina txekerik onartzen duzue?  
Dendariak: Bai, noski.
- Emakumeak: Oso ondo, hortaz. Nola da dendaren izena?  
Dendariak: Ipini: «Lolita Moda Gaztea» denda.
- Emakumeak: Eta gonak zenbat balio duela esan duzu?  
Dendariak: 5.799 pezeta.
- Emakumeak: (Letraz letra idazten ari delako) Bost mila zazpirehun eta larogeita hemeretzi peseta. Et gaur 1983ko azaroaren zazpia.  
Dendariak: Oso ondo. Orain izenpetu. Nola duzu izena?
- Emakumeak: Maria Lurdes Gorroño. Beno, tori.  
Dendariak: Ondo da. Eskerrik asko. Tori gona.
- Emakumeak: Agur.  
Dendariak: Bai, hurren arte.



- GIZONAK: Ez, ez; hutsik dago.  
 EMAKUMEAK: Beste gauza bat: gela guztiak kalera begira daude?  
 GIZONAK: Bai, noski, gela guztiak daude kalera begira. Ez du gelarik patio aldera.  
 EMAKUMEAK: Eta berogailu eta telefonoa baditu?  
 GIZONAK: Begira. Berogailua badu, baina telefonorik ez. Eskailerako gastuak ere ez dira garestiak: bi mila pezeta besterik ez.

• **Ikaslearen fitxa**

Orrialdeko datuak bete

Martin IRIGOIEN		Telefonoa: 415238	
Zenbat logela	---	---	---
Zenbat komun	---	---	---
Terrazarik	bai	ez	
Balkoirik	bai	ez	
Metro karratuak	---	---	---
Garajerik	bai	ez	
Ganbararik	bai	ez	
Prezioa	---	---	---
Tokia	---	---	---
Haltzaririk	bai	ez	
Baruko gelarik	bai	ez	
Berogailurik	bai	ez	
Telefonurik	bai	ez	
Eskailera-gastuak	---	---	---

Hauek dira entzumen-ariketa mota honetan erabil daitezkeen zenbait gai eta hitz-zerrenda:

- Oporretara joateko maletak presatzen: arropak, bainu-jantzia, irakurtzeko liburuak, eguzkitako betaurrekoak, kremak, toaila...
- Erosketetako zerrenda: ogia, esnea, sagarrak, arraina, egunkaria, barazkiak, gazta...
- Gaur egin behar ditudan gauzak: ileapaindegira joan, erosketak, plantxatu, bazkaria prestatu, lagunak ikusi...
- Oporretan ikusi behar ditudan tokiak: Londres, Edinburgo, Paris...

#### 4.8. Marrazkiak

##### 4.8.1. Identifikatu eta ordenatu

Ikasleei marrazki batzu banatzen zaizkie. Ikasleek, hauen deskribapena entzutean, deskribatuak izan diren ordena berean zerrendatuko dituzte marrakiok.

Oso egokiak dira, esaterako, Quinoren «Gente en su sitio»\* liburuko bineetak. Aukeratutako binetaren marrazkiei testua jarri diezaiekegu eta ikasleei testurik gabeko marrazkiak nahastuta eman. Ikasleek testua entzun ahala, binetako marrazkiak testuaren arabera ordenatu beharko dituzte. Baina kontuz ibili beharko dugu binetako marrazkiak aukeratzekoan; marrazkiak ordena batean baino gehiagotan jartzeko modukoak izatea komeni da; bestela, entzundakoari kasurik egin gabe bineta osatzeko gai izango bait lirateke ikasleak. Bestalde, ez da komeni izaten 5 edo 6 marrazki baino gehiago erabiltzea, denbora gehiegi eskatuko bait luke bineta osatzeak.

##### 4.8.2 Marrazkia aldatu

Haurrei asko gustatzen zaie marrazkiak egitea, aldatzea, erretratoei biboteak, bizarra eta txapela jartzea... Baita helduei ere. Ikus dezagun hori aprobe txatuz egin daitezkeen joko bat: «NOLAKOA DA IÑIGO» (1. urratsa, 10. ikastunitatea, HABE).


«NOLAKOA DA IÑIGO»	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Nola egin</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Gidoia behin edo bi aldiz entzun</li> <li>— Ulertu</li> <li>— Berriro entzun</li> <li>— Ikaslearen fitxa bete</li> </ul> </li> <li>• <b>Entzuteko gidoia</b></li> </ul>	<p>DOLORESEK : Arratsalde on, Gertrudis.</p> <p>GERTRUISEK : Arratsalde on, Dolores. Zer moduz?</p> <p>DOLORESEK : Beno, ondo. Erreumarekin berriro, baina tira. Begira, begira nire iloba Iñigo.</p> <p>GERTRUISEK : Norena da mutiko hau? Jonena?</p> <p>DOLORESEK : Ez, Jon ezkongai dago, Pedrorena da, 17 hila-bete ditu.</p> <p>Begira zer polita den!</p> <p>GERTRUISEK : Bai, zure begiak ditu, Dolores.</p> <p>DOLORESEK : Bai, nire begiak; eta ile kizkurra Jonena da.</p> <p>GERTRUISEK : Bai, ilea Jonena da, baina belarriak Juliorenak dira.</p>

\* QUINO (1979): Gente en su sitio, Barcelona, Lumen.

DOLORESEK : Bai, baina sudurra nirea da, ezta?  
 GERTRUISEK : Bai, eta hortzak? Julianarenak dira. Bai itsu-  
 siak. Eta irrifarra?  
 DOLORESEK : Irrifarra berea da, Iñigorena da.  
 GERTRUISEK : (Haurri lastanak egiten dizkio).  
 DOLORESEK : Beno, Gertrudis, joan egin behar dut.  
 GERTRUISEK : Agur, Dolores, nik ere bazkaria prestatu be-  
 har dut.  
 DOLORESEK : Adio

• Ikaslearen fitxa

Entzun, eta Iñigoren aurpegia marraztu.



**4.9. Planoak eta mapak**

Oso egokiak dira entzumen-arikete-tarako, batez ere ikasleengan sortzen duten motibazio eta interesarengatik.

Ikus dezagun «GIDARI-ESKOLA» (1. urratsa, 11. ikastunitatea, HABE) ize-neko ariketa:

**«GIDARI-ESKOLA»**

• **Nola egin**

- Gidoia behin edo bi aldiz entzun.  
(Gidari-eskolako irakaslea emakumea da eta ikaslea gizona)
- Ulertu
- Berrio entzun eta ikaslearen fitxa osatu.

• **Gidoia**

**GIDARI-ESKOLA**

- IRAKASLEAK:** Kotxea gidatzeko hau egin behar duzu: lehenengo, kotxea martxan ipini; gero enbragea sakatu eta lehenengo martxa ipini; azkenik, enbragea poliki-poliki askatu.
- IKASLEAK :** Horrela?
- IRAKASLEAK:** Gizon guztiak tentelak zarete. Poliki esan dizut. POLIKI. Begira. Honela. Bigarrena sartzeko, enbragea berriro sakatu behar duzu eta poliki bigarrena jarri. Horrela ez. Gizon hauek...
- IKASLEAK :** Hau ez da bigarrena?
- IRAKASLEAK:** Ez, hori hirugarrena da. Hau da bigarrena. Ea, ba; zer egin behar duzu frenatzeko?
- IKASLEAK :** Sakatu, ezta?
- IRAKASLEAK:** Baina, zer sakatu behar duzu?
- IKASLEAK :** Frenoa sakatu behar dut eta gero enbragea.
- IRAKASLEAK:** Tira, ba; orain hasiko gara: martxan ipini, enbragea, lehenengo martxa, poliki, enbragea, berriro, bigarrena... oso ondo, astiro joan, ez dugu presarik, eta kontuz. Enbragea berriro, hirugarrena, oso ondo. Segi aurrera.
- IKASLEAK :** Baina, nora goaz? Hiri erdira? Ez, mesedez, trafiko handia dago.
- IRAKASLEAK:** Kale nagusian frenatu. Begira, semaforoa gorri dago! Eskuinetara joan. Poliki-poliki.
- IKASLEAK :** Baina, autobus hori nora doa? Txoratuta dago ala?
- IRAKASLEAK:** Oso ondo zoaz. Orain frenatu piska bat eta lehenengo martxa ipini, Pilota kalera goaz eta. Poliki-poliki, ez dugu presarik. Beste semaforo bat. Frenatu eta gero Haizea kalean ezkerretara jo.
- IKASLEAK :** Oso urduri nago. Furgoneta bat dugu atzean.
- IRAKASLEAK:** Zuk segi aurrera. Piska bat frenatu eta Dormitaleria kalean sartu. Kontuz, bizikleta bat. Poliki joan.
- IKASLEAK :** Begira, txakur bat kale erdian.
- IRAKASLEAK:** Poliki joan. Lehentasuna duzu. Semaforoa berdea dago. Zuzen joan Ilargia kalera. Poliki, ez dago presarik. Orain ezkerretara, Leire kalera sartu.



Talde bakoitzak bere zatia entzun ondoren, ikasleak hirunakako taldetan jarriko ditugu, talde bakoitzean zati desberdina entzundako hiru ikasle egongo delarik. Izan ere, ariketaren bigarren eginkizuna ikasle bakoitzak planoan apuntatutako datuak taldeko lagunei kontatzea izango da, horrela baserriko esparru guztien erabilera osatuz.

Hirugarren eginkizuna beren ametsetako baserria eztabaidatzea eta deskribatzea izango da.

## • Irakaslearen fitxa

### 1. ZATIA

Beno, azkenean etorri zarete. Lehenengo, baserriaren planoak erakutsiko dizuet eta horrela hobeto ikusiko duzue nola banaturik dagoen. Ondoren, ikustera joan gaitezke, nahi baduzue.

Baserriaren atzekaldean 3 zenbakia daukan zelaia ikusten duzue. Aurten belarra eta alpalpa egiteko utzi behar dugu zelai hori. Baserrian 10 bat behi daukagu, eta beti behar izaten da horrelako zelai bat behientzat. Zelai horren ondoko esparruan, 4 zenbakia duenean, sagarrondo, madariondo eta intxaurreondoak daukagu. Orain dela hamar urte sartu genituen eta ez gara damutu. Sagarra eta madaria ugari biltzen dugu udaldez, gero Durangoko merkatuan saltzeko. Intxaurreak, berriz, udazkenean biltzen ditugu.

Beste soro honetan, baserriaren ezkerrean dagoenean, artoa ereingo dugu ziur aski. Artoa oso ona da animalien janaritarako, batez ere oilo eta behientzat.

### 2. ZATIA

Beno, ba, planoan ikus dezakezuenek, zortzi esparru ditu baserriak. Esparru bakoitza gauza diferente baterako erabiltzen dugu. Aurten, adibidez, erreka ondoko zelai handi horretan ez dugu ezer ereingo; belarretarako utziko dugu ardientzat. Zelai honen ezkerrekoa ere ardientzat izango da aurten. Uda-berri honetan ardi-esne dexte saldu dugu. Durangoko merkatura joaten gara esnea saltzera, eta auzoko batzu ere baserria etortzen zaizkigu erostera. Ardi eta behi-esnea eta arrautzak ere erosten dizkigute. Ah bueno!, harategietatik arkumeak eskatzen dizkigute saltzeko.

Hemendik, leihotik, ikusten den puska horretan, planoan 2 zenbakia daukanean, babak eta lekak egingo ditugu. Horiek ez dira denak guretzat izango. Sobre gelditzen direnak merkatura eramaten ditugu saltzera.

### 3. ZATIA

Zatozte honantza eta baserriaren plano bat erakutsiko dizuet; horrela hobeto ikusiko duzue nola banaturik dagoen. Ikusten duzuenek, hainbat esparru ditu eta horietako bakoitza gauza baterako erabiltzen dugu. Erreka ondokoan, boskarrenean, adibidez, orain dela 15 bat urte pinua sartu genuen, eta baita erreka bestaldeko lurretan ere. Baina planoan ez dira pinua sartutako lur guztiak ikusten. Sarrera, bideko eskuinaldean ikusten duzuen lurra, barazkietarako erabiltzen dugu. Hor egiten ditugu, adibidez, tomateak, letxugak, azelgak, porruak, azenarioak, tipulak. Aurten endibia ere aldatuko ditugu ziur aski. Zer gehiago? Ah,... kalabazinak, azak eta horrelakoak. Horiek, gero, batzu etxerako eta besteak merkaturatu saltzeko izaten dira...


• **Ikaslearen fitxa**

— *Sarrera*

Gregorio Ganboa Durangaldeko baserritarra da. Eskola bateko haur batzu joan dira beren irakaslearekin baserria ezagutzera. Zinta honetan entzungo duzunez, Gregoriok haurrei bere baserria deskribatzen die, beheko planoaz baliatuz.

— *Eginkizuna*

Planoaz baliatuz, Gregorioren azalpenak idatz itzazu: zein lur-sail eta zertarako erabiltzen ditu?



— *Eztabaidarako*

1. Eztabaida ezazue hirunaka zertarako erabiltzen duen Gregoriok esparru bakoitza. Hiruron artean planoak osatu.
2. Baserria zuena balitz, nola banatuko zenukete? Idatz ezazue zuen «ametsak» baserriaren deskribapena.

## 4.10. Diagramak

Entzumen-ariketetan erabil daitekeen beste teknika bat diagramena da. Diagramek mapak eta planoek baino aukera zabalagoa eskaintzen dute bizi-

tzako zenbait alderdi deskribatzeko. Hona hemen «SONDIKA AIREPORTUAN» (3. urratsa, 40. ikastunitatea, HABE) izeneko entzumen-ariketa:

## «SONDIKA AIREPORTUAN»

- 
- BIKOTEA : Kaixo, arratsalde on.
- BULEGARIA: Baita zuei ere. Ongi etorri Bilbora! Zer nahi duzue?
- MUTILA : Ba, begira. Buenos Airesekoak gara eta ez dugu Bilbo ezagutzen. Hotel, jatetxe eta kafetegiei buruzko informazioa nahi dugu.
- BULEGARIA: Bai, horixe. Hona hotelen informazioa. Ertzilla Hotela, esate baterako, oso ona da, baina garestia. Bost mila pezeta gaueko. Indautxun dago, hiri erdian.
- NESKA : Ez, hori ez. Oso garestia da guretzat. Merkeagorik ez dago?
- BULEGARIA: Bai. Denetarik dago. El Ocaso, adibidez, Alde Zaharrean dago, Iturribide Kale hasieran, baina oso zaharra da.
- MUTILA : Guk berria nahiago dugu.
- BULEGARIA: Orduan Bilbo Hotela komeni zaizue. Hiru mila pezeta gaueko. Campo Volantinen.
- NESKA : Emaguzu telefonoa mesedez.
- BULEGARIA: Idatzi: 45-43-45-6. Berriz: 45-43-45-6.
- MUTILA : Milesker. Eta jatetxe egokirik?
- BULEGARIA: Horrelakoak asko dira. Nolako janaria gustatzen zaizue: euskalduna, txinatarra...?
- MUTILA : Niri italiarra: pizzak eta pastak. Jatetxe italiarrik badago?
- BULEGARIA: Bai, Madariaga Hiribidean dago bat, Deustu auzoan. Oso merkea eta ona gainera. Hau da telefono-zenbakia.
- NESKA : Esan.
- BULEGARIA: 43-52-23-5. Berriz: 43-52-23-5. Kafe ona nahi baduzue, Arriaga edo Iruñea kafetegietara joan. Jende asko izaten dute.
- BIKOTEA : Non daude?
- BULEGARIA: Arriaga Arenalean dago, Arriaga antzokiaren azpian; eta Iruñea kafea Albia lorategietan, Dena Berdea jate-txearen ondoan.
- MUTILA : Milesker.
- BULEGARIA: Ez horregatik. Eta egun onak igaro gure artean.

• **Ikaslearen fitxa**

Zinta entzun eta azaltzen diren hotel, kafetegi eta jatetxeen helbidea, telefono-zenbakia eta prezioa diagraman jaso.

IZENA	HOTELAK			KAFETEGIAK		JATETXEA
	ERTZILLA	EL OCASO	BILBO	ARRIAGA	IRUÑEA	PIZZARELLA
HELBIDEA						
TELEFONOA						
PREZIOA						

Goikoa bezalako diagrama huts bat eman diezaiekegu ikasleei, entzundako datuak jaso ditzaten, edota ondorengo bezalakoren bat okerrez betea, okerrok

zuzentzeko. Edozein motudan ere, azpian azaltzen denaren antzeko bat izango litzateke soluzio zuzena erakusten duena.

IZENA	HOTELAK			KAFETEGIAK		JATETXEA
	ERTZILLA	EL OCASO	BILBO	ARRIAGA	IRUÑEA	PIZZARELLA
HELBIDEA	Deustu	Indautxu	Campo Volantín	Dena Berdea jateke ondoan Udaleke ondoan	Parte Zaharra	Zabalburu
TELEFONOA	4355138	4357746				4358195
PREZIOA	4.500 eguneko	3.600 asteko	3.400			

IZENA	HOTELAK			KAFETEGIAK		JATETXEA
	ERTZILLA	EL OCASO	BILBO	ARRIAGA	IRUÑEA	PIZZARELLA
HELBIDEA	Indautxu. Hiri erdian.	Alde Zaharra. Iturribidean	Campo Volantín	Arenalean. Arriaga aurrerik azpian.	Albia lorategian Dena Berdearen ondoa.	Madariaga Hiriakidean. Deustuan.
TELEFONOA			4543456			4358335
PREZIOA	5000 gaurko		3000 gaurko			

Diagramen teknika beste egoera entretengarriago batzutan ere erabil dai-

teke: hilketak, irratiko berriak, eguraldia, planak...

## 4.11. Famili zuhaitzak

Diagrama mota berezia dugu famili zuhaitzarena. Oso egokia da bai entzumen eta baita mintzamen-ariketa bezala, familiarteko harreman eta honen inguruko istorioak interesgarriak izaten dira eta. Ikus dezagun, adibidez, «URIARTETARRAK» izeneko ariketa:

## «URIARTETARRAK»

- (Jaime eta bere laguna, Ana, argazkiak ikusten ari dira Jaimeren etxean)

Jaime: Begira, Ana! Argazki honetan azaltzen da nire amaren familia.

Ana : Hauek al dira zure aitona-amonak?

Jaime: Bai, bizkaitarrak dira. Patxi du izena aitatak. Amama, Margari, oraindik bizi da... Markinan. Begira, hau da berarekin bizi dena... Osaba David. Nire antza duela esaten dute.

Ana : Hori al da zure osaba David?

Jaime: Bai, gaztetan Ameriketara joan zen, pilotan jokatzera. Han hamar bat urte egin zituen eta berriro itzuli zen. Bera da hiru neba-arreben artetik ezkondu ez den bakarra. Orain amarekin bizi da Markinako baserrian...

Ana : Eta, bi hauek zure Bilboko osaba-izeba izango dira orduan?

Jaime: Bai, Sabin eta Feli. Izeba Feliren besoetan dagoen umetxoa Susi zen; orain dela hiru urte edo hil zitzairen kotxe-istripu batean. Amamak ere pena handia hartu zuen... Susi zuen iloba neska bakarra. Beste guztiak mutilak gara. Begira, bi hauek dira Imanol eta Jon lehengusuak. Imanol soldaduskan dago orain. Jon ezkondu egin zen eta Bartzelonan bizi da.

Ana : Oso dotore dagoena zure aita da, bi koloreko zapatekin! Benetan, lehen gizonek beste gustu bat zeukaten jatzeko!

Jaime: Gertatzen dena zera da: argazki hau orain dela urte asko ateria dela. Horregatik harritzen zaitu piska bat jazkerak. Argazki hau atera zutenean, oraindik nire anaia Iñaki jaio gabe zegoen. Horregatik ez da ageri.

Ana : Zuk bost bat urte izango dituzu hemen.

Jaime: Gutxi gorabehera bai...

Ana : Orduan, zure izeba Feli izango da neba-arreben arteko zaharrena, ezta?


Jaime: Beno, izeba Feli ez, Feli nire amaren koinata da. Nire amaren nebarik zaharrena Sabin da, gero nire ama dator, Miren, eta gazteena, David. Uriartetarrak...

Ana : ...

Jaime: ...

• **Ikaslearen fitxa**

Zinta entzun eta famili zuhaitza osatu. Har itzazu familiako partaide bakoitzaren ahalik eta datu gehienak.



**4.12. Grafikoak**

Arestian ikusitakoaren antzeko ariekta grafikoak erabiliz ere egin daitezke. Grafikoek informazioa eskaintzen dute eta egokiak dira goi mailetan erabiltze-

ko. Ikus dezagun Jakin\* aldizkaritik hartutako «1970-1980: azken hamar urteotako liburuak eta gaiak» adibidea. (Testua irakasleak berak irakur dezake edo zintaz grabatua eman):

• «Eboluzio-lerro hauei begira, erakutsi pare bat atera dezagun:

Liburu-produkzioaren bilakaerako grafikoan, kontuan hartzekoa da 1975era arte produkzioak ez duela 100 gaintzen eta geroztik ez dela jaisten. Eta azpimarratzekoak dira, alde batetik, 1976az geroztik produkzioaren abiadaren etengabea eta handia, eta, bestetik, 1980ko beherakada aipatua.


Gairik erabilienean grafikoan bizpahiru gauza nabarmenduko nuke; lehenengoa, literaturaren goititasuna urte denetan, eta beronen beherakada harri-garria 1980an. Bigarrena, azken lau urteotako gorakada hiru liburu-motari zor zaiola bereziki: literatur liburuari, «orotatik» sailekoari (ipuinak eta horrelakoak) eta irakaskuntz liburuari (testu eta ingurukoak)...

• **Ikaslearen fitxa**


Zinta entzun eta, grafikoaren laguntzaz, 1970-1980ko liburu-produkzioaren bilakaera eta gai-sailik erabilienei buruzko ondorioak atera.

Ondoren, ateratako ondorioak erabiliz, euskal liburugintzari buruzko eztabaida bat sortu taldeka.

1970-1980: liburu-produkzioaren bilakaera



1970-1980: Gai-salik orabilienak



## BIBLIOGRAFIA

- ENTZUMENARI BURUZKO LIBURU TEORIKOAK
  - ALLEN, E.D.; VALETTE, R.M. (1972): *Classroom Techniques: Foreign Languages and English as a Second Language*, New York, Harcourt Brace Jovanovich, 179-207 orr.
  - CELCE-MURCIA, M.; MCINTOSH, L. (1979): *Teaching English as a Second or Foreign Language*, Rowley, Newbury House, 63-74 orr.
  - JOHNSON, K.; MORROW, K. (1981): *Communicative Language Teaching: an introduction*, Cambridge, Cambridge University Press, 78-86 orr.
  - PAULSTON, Ch. B.; BRUDER, M.N. (1976): *Teaching English as a Second Language. Techniques and procedures*, Boston, Little Brown & Co., 127-155 orr.
  - RIVERS, W.M.; TEMPERLEY, M.S. (1978): *A Practical Guide to the Teaching of English as a Second or Foreign Language*, New York, Oxford University Press, 62-98 orr.
  - RIVERS, W.M. (1981): *Teaching Foreign-Language Skills*, Chicago, The University of Chicago Press, 151-184 orr.
  - UR, P. (1984): *Teaching Listening Comprehension*, Cambridge, Cambridge University Press, 173 orr.
- ZENBAIT LIBURU PRAKTIKO ENTZUMEN-ARIKETAZ
  - BLUNDELL, L.; STOKES, J. (1981): *Task Listening*, Cambridge, Cambridge University Press.
  - GEDDES, M.; STURTRIDGE, G. (1979): *Listening Links*, London, Heinemann.
  - GORE, L. (1979): *Listening to Maggie*, London, Longman.
  - HABE (1984): *Euskalduntzearen A Mailarako Langaiaak*, Donostia, HABE.
  - McCLINTOCK, J.; STERN, B. (1980): *Let's Listen*, London, Heinemann.
  - McLEAN, A.C. (1981): *Start Listening*, Harlow, Longman.
  - MORTIMER, C. (1980): *Dramatic Monologues for Listening Comprehension. Resource material for listening and fluency practice*, Cambridge, Cambridge University Press.
  - SCARBROUGH, D. (1984): *Reasons for Listening*, Cambridge, Cambridge University Press.
  - SCOTT, W. (1980): *Are you listening?*, Oxford, Oxford University Press.
  - TODD, F. (1981): *Focus Listening*, London, Macmillan Press.
  - WEBSTER, D. (1981): *Keep Listening*, Harlow, Longman.
  - WELLMAN, G. (1982): *Hearsay. Listening work*, Walton-on-Thames, Nelson.

### EJERCICIOS PARA EL DESARROLLO DE LA COMPRENSION AUDITIVA

- En la planificación de actividades para el desarrollo de la comprensión auditiva hay que tener en cuenta los siguientes factores:
  - Las situaciones para las que estamos preparando al alumnado y las dificultades con las que se encontrarán.
  - El proceso de enseñanza-aprendizaje en la clase.
  - Características físicas del aula (tamaño, organización del mobiliario), n.º de alumnos.
  - Problemas técnicos: utilización del cassette, vídeo y otros materiales.
  - Problemas pedagógicos:
    - Elección del discurso
    - Importancia de la tarea en las actividades auditivas
    - La corrección
- Clasificación de las actividades auditivas para desarrollar la comprensión del discurso hablado con respuesta corta por parte del alumno:
  - Obedecer instrucciones.
  - Clasificación de items.
  - Verdadero/falso.
  - Detectar errores.
  - Rellenar vacíos.
  - Acertar definiciones.
  - Detectar información específica.
  - Dibujos.
  - Planos y mapas.
  - Diagramas.
  - Árboles de familia.
  - Gráficos.

### EXERCICES FOR THE DEVELOPMENT OF LISTENING COMPREHENSION

- In the planning of activities for the development of listening comprehension, the following factors are to be taken into account:
  - The situation for which we are preparing the students and the difficulties they are going to find.
  - The physical characteristics of the classroom (size, furniture lay out), number of students.
  - Technical problems (use of a tape recorder, video and other materials).
  - Pedagogical problems:
    - Importance of the task in the listening activities
    - Choice of discourse
    - Correction
- Classification of the listening activities to develop the comprehension of spoken discourse with a short answer from the student:
  - To carry out instructions.
  - Items classification.
  - True/False.
  - To find out errors.
  - To fill the gaps.
  - To detect specific information.
  - Drawings.
  - Diagrams.
  - Family trees.
  - Charts.

### EXERCICES POUR LE DEVELOPPEMENT DE LA COMPREHENSION AUDITIVE

- *Dans la planification d'activités pour le développement de la compréhension auditive, il faut tenir en compte les facteurs suivants:*
  - *Les situations pour lesquelles nous préparons les élèves et les difficultés qu'ils rencontreront.*
  - *Le processus d'enseignement-apprentissage dans la salle de classe.*
  - *Caractéristiques de la salle de classe (dimensions, disposition du mobilier), nombre d'élèves.*
  - *Problèmes techniques: utilisation du magnétophone à cassettes, vidéo et autre matériel.*
  - *Problèmes pédagogiques:*
    - *Choix du discours*
    - *Importance de la tâche dans les activités auditives*
    - *La correction*
- *Classification des activités auditives pour le développement de la compréhension du discours parlé avec une réponse courte de la part de l'élève:*
  - *Obéir des instructions.*
  - *Classification des items.*
  - *Vrai/faux.*
  - *Détecter des erreurs.*
  - *Remplir des vides.*
  - *Deviner des définitions.*
  - *Détecter de l'information spécifique.*
  - *Dessins.*
  - *Plans et cartes.*
  - *Diagrammes.*
  - *Arbres de familles.*
  - *Graphiques.*